

- Ze behar edo arazo konpontzen dugu?
 - Zer bereizten zaituzte eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuei ordaintzeko prest?
-

• Ze behar edo arazo konpontzen ditugu?

Gaur egun, ezintasunei garrantzi gehiago ematen diogunez, ezintasuna aitortuta daukaten pertsona kopurua gehiago dira. Gainera, bizkaiko foru aldundiak mankomunitatetik egiten dituzte doainezko frogak. Alde batetik, ezintasun batekin jaio diren pertsonak daude, eta bestetik, istripu edo egoera desberdinen ondorioz ezintasunak jasandakoak. Adibide gisa, laneko edo errepideko istripuek, edota kromosomen alterazioak eragindako ezintasunak aipatu daitezke.

Gure enpresaren helburua gizartearen ongizatea sustatzea da, eta horretarako, ezintasun bat duten pertsonen lana bilatzen laguntzeko aukerak eskaintzea. 2022-an ezingabeen %34ak egiten zuen lan, ezingabeak ez direnekin alderatuz portzentai oso baxua da, horregaitik, uste dugu gizartean dagoen estali gabeko hutsune bat dela, eta honi aurre egiteko enpresa bat sortuko dugu irtenbide bat izan dezan.

Gure helburu nagusia ez da ezintasun bat duten pertsonen sektore edo enpresa zehatzetan finkatzea, baizik eta mota guztietako sektoreetan eta arloetan lan egiteko aukerak eskaintzea. Enpresa baten barruan lanean ari direnean, beharrezkoa da ezintasun bat dutenek bere kideekin harremanetan egotea, bai ezintasunen bat dauzkaten kideekin, eta bai ezintasunik ez dauzkaten kideekin, beraien arteko lan-harreman egokia sustatuz. Era berean, ezindua ez den pertsona batekin ere harremanetan egotea nahi dugu, haiek bere bizitzako momentu guztietan desberdinak sentitu ez daitezen. Horretaz gain, lan munduan pertsona horiek gustuko duten lanpostu bat aurkitzea dugu helburu, eroso eta konforme sentitu daitezen.

Honekin esan nahi duguna da, ezinduak, lana aurkitzeko arazoak dituztenez, gure proiektua ezinduei sektore desberdinetan lan-aukerak eskaintzea du helburu.

Zer bereizten gaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?

Ezinduak eroso egon daitezkeen sektore edo enpresa batera bideratzen ditugu, eta hori da bereizten gaituena beste enpreseekin alderatzean, haien ongizatea bilatu eta gustuko duten enpresa batean lan egin dezaten dugu helburu. Horretarako, daukaten ezintasun maila aztertzen dugu eta egin daitekeen eginkizun bat egokitzen diegu.

Egun, Fekoor ezintasunei lana bilatzeko erraztasuna helarazten dioten enpresa bat da. Hala ere, honek ezintasun fisikoa eta organikoa duten pertsona guztiak ordezkatzeko ditu. Gure enpresak aldiz, ezintasun fisikoa eta organikoa ez ezik, ezintasun kronikoak eta mentalak duten pertsonak ere ordezkatzeko ditugu. Bestalde, Fekoor Euskal Herriko hainbat laguntza jaso egiten ditu, esate baterako, Eroski, BBK, Eusko Jaurlaritza... Gainera, Fekoor-en aurrekontuak oso handiak dira, esaterako, 2024an esperotako gastuak 4.712.408,60€-koak

dira. Fekoor-en baliabideak oso handiak direla adieraziz diru gutxiago inbertituta gure helburua lortu ahalko genukeela adierazi nahi dugu.

Alde batetik, Fekoor-ek hainbat helburu nagusi ditu; lehenik, inguruaren irisgarritasun unibertsala dauka, hau da, inguruneak bete behar dituzten baldintzak, pertsona guztiek erabili eta gozatu ahal ditzaten segurtasunez eta modu autonomoan. Jarraitzeko, lana edukitzeko aukera berdinak izatea, baita bizimodu independentea ere. Bestalde, gure helburuak askoz zehatzagoak dira, eta hauetan zentratuz erantzun hobeagoak lortu ahalko genituzke.

Ondorioz, esan dezakegu gure enpresak ikuspegi espezializatuago eta pertsonalizatuago eskaintzen duela, ezintasun mota guztiei erantzunez (fisikoak, organikoak, kronikoak eta mentalak). Pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako lan-inguruneak bermatzen ditugu, haien ongizatea eta gustuko lanpostua lehenetsiz.

Fekoor-ek baliabide eta aurrekontu handiagoak izan ditzake, baina haien zerbitzua orokorragoa da eta ez du hainbesteko pertsonalizazioa eskaintzen. Horrela, gure enpresa aukera erakargarriagoa da kalitatezko eta inklusiboagozko zerbitzua bilatzen dutenentzat.

[2024ko fekooren aurrekontuak](#)

Fekoor-en laguntzak



Bezeroak: Lantegi Batuak, Centro Rafaela María, Eragintza